Casa de las Mujeres de Pamplona
Iruñeko Emakumeen Etxea

# EMAKUMEEN ETXEKO PROGRAMAZIOA

## Udazkena-negua 2022/23



LG NA 1757-2021

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

Casa de las Mujeres de Pamplona
Iruñeko Emakumeen Etxea

**Emakumeen Etxea**

Agoitz kalea 9, 31004 Iruña

Ordutegia: 17.00-21.00

Tfnoa: 948 110 230

casadelasmujeres@pamplona.es

**Iruñeko Emakumeen Etxea emakumeen** hausnarketarako eta ahalduntzerako espazio gisa sortu da. Hiriko emakume guztiendako topagunea eta erreferentziagunea, emakumeen eta gizonen arteko benetako parekidetasuna lortzeko behar diren indarguneak eta sinergiak sortzeko eta aliantzak ehotzeko abiapuntu izanen dena.

Jarduera guztiak doan izanen dira. Izen-ematea: 010/948 420 100

Programazio honi jarduera batzuk gehituko zaizkio berdintasunaren alde lanean ari diren elkarteen eta entitateen proposamenen artetik. Programazio osoa eta etengabeko eguneraketak Emakumeen Etxean kontsultatu daitezke.



Iruñeko Emakumeen Etxea Asociación Elkartea Casa de las Mujeres de Pamplona

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# EGUTEGIA



## URRIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | MEDITAZIOA | ASTELEHENA. URRIAREN 17TIK OTSAILAREN 27RA | 19.30 - 20.00 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | FEMINISMOEN ESKOLA (I. MAILA) | ASTELEHENETAN, URRIAREN 17TIK MAIATZAREN 26RA | 17.00 - 19.30 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | FEMINISMOEN ESKOLA (II. MAILA) | ASTELEHENETAN, URRIAREN 17TIK MAIATZAREN 26RA | 17.00 - 19.30 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | GENEROA ETA VISUAL THINKING: MARRAZTEA DISKURTSO FEMINISTARI BURUZ GOGOETA EGITEKO ETA HURA HELARAZTEKO | URRIAK 17, 24 ETA 31 | 17.00 - 19:00 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | CHI KUNG | ASTEAZKENA. URRIAREN 19TIK OTSAILAREN 22RA | 18.00 - 20.00 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | XAKEAREN HASTAPENAK | OSTEGUNA. URRIAREN 20TIK ABENDUAREN 22RA | 19.00 - 20.30 |
| JARDUERAK | GIB PROBAREN EGUNEKO JARDUNALDIA EMAKUMEEN ETXEAN | URRIAK 20 | 17.00 - 21.00 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA ETA BALIOKIDETZA | URRIAK 21 | 18.00 - 19.30 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | BOLIVIA, BRASIL, PERU, DOMINIKAR ERREPUBLIKA ETA URUGUAIKO EMAKUMEAK, XVI. MENDETIK GAUR EGUNERA | LARUNBATETAN. URRIAK 22, AZAROAK19, ABENDUAK 10, URTARRILAK 14 ETA OTSAILAK 20 | 18.00 |
| JARDUERAK | ASKOTARIKO EMAKUME MIGRATU ETA ARRAZALIZATUEN TOPAKETA | URRIAK 27 | 18.30 - 20.30 |
| JARDUERAK | ZINEFORUMA: EMAKUMEAK ETA FEMINISMOAK. “UNA CUESTIÓN DE GÉNERO” | URRIAK 27 | 18.00 - 21.00 |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | SOLASALDI-ARRATSALDEAK EMAKUMEEN ETXEAN | OSTEGUNA. URRIAK 27, AZAROAK 24, ABENDUAK 29, URTARRILAK 26 ETA OTSAILAK 23 | 18.00 - 19.30 |

Casa de las Mujeres de Pamplona
Iruñeko Emakumeen Etxea

# AZAROA. ABENDUA

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | ESTRATEGIAK GORPUTZA ETA EMOZIOA TRESNA ERALDATZAILE FEMINISTA GISARA INTERPRETATZEKO | *ASTEAZKENA. AZAROAREN 2TIK ABENDUAREN 7RA* | *18.00 - 20.00* |
| JARDUERAK | SEXU-INDARKERIA | *AZAROAK 3* | *18.00* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | ELKARRI LAGUNTZEKO TALDEA ETXEETAKO ETA ZAINTZAKO LANGILEENDAKO | *LARUNBATETAN. URTARRILAK 5 ETA 19, ABENDUAK 17, URTARRILAK 7 ETA 21 ETA OTSAILAK 4 ETA 25* | *16.00-19.00* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | VIOLETA PARRA EHUNEN LANTEGIA | *ASTELEHENETAN. AZAROAK 7,14 ,21 ETA 28* | *17.30 - 19.30* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | NOLA EGIN KARTEL BAT NIRE ELKARTEAREN JARDUEREN BERRI EMATEKO | *AZAROAK 14, 15, 16 ETA 17* | *18.00 - 19.30* |
| JARDUERAK | EMAKUME ETA FEM-ALIGNED EZ BITAR LESBIANEN, BOLLEREN ETA BISEXUALEN GAZTE-TOPAKETA | *AZAROAK 15 ETA OTSAILAK 21* | *18.30* |
| JARDUERAK | GENEROA ARRAZISMO GARAIAN | *AZAROAK 18* | *18.30* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | UR EMAKUMEAK: EMOZIOAK ETA SEXUALITATEA | *OSTIRALA. AZAROAK 4, 11, 18 ETA 25. ABENDUAK 2 ETA 9* | *17.30 - 19.30* |
| JARDUERAK | ESPAINIAKO ARRAZISMOAREN GAINEKO 2022KO TXOSTENA | *URRIAK 27* | *18.00 - 19.30* |
| JARDUERAK | ZINEFORUMA: EMAKUMEAK ETA FEMINISMOAK. "SOLAS" | *AZAROAK 29* | *18.00 - 21.00* |
| JARDUERAK | PEÑETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO AZTERLANAREN AURKEZPENA | *ABENDUAK 15* | *18.00* |



# URTARRILA. OTSAILA

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | WHATSAPP ETA INSTRAGRAM HEDAPEN-TALDEENDAKO | *URTARRILAK 23, 24, 25 ETA 26* | *18.00 - 19.30* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | BA AL ZENEKIEN HISTORIA GAUZAK EGITEN DITUZTEN EMAKUMEEZ BETETA DAGOELA?FESTA TRIBIAL FEMINISTAREKIN | *URTARRILAK 12* | *18.00 - 21.00* |
| JARDUERAK | MENOPAUSIA: EMAKUMEENDAKO ALDAKETAK ETA ERRONKAK | *URTARRILAK 19* | *18.00 - 20.00* |
| JARDUERAK | ZINEFORUMA: EMAKUMEAK ETA FEMINISMOAK. “LAS NIÑAS” | *URTARRILAK 19* | *18.00 - 21.00* |
| JARDUERAK | ZINEFORUMA: EMAKUMEAK ETA FEMINISMOAK. “HIROSHIMA MON AMOUR” | *OTSAILAK 16* | *18:00 - 21.00* |
| IKASTAROAK / LANTEGIAK | GU EMAKUMEON MEMORIA ETA HISTORIA BERRESKURATZEN | *ASTEARTEA. OTSAIAK 1, 8, 15 ETA 22* | *18.00 - 20.00* |
| JARDUERAK | AMODIOAK, HAUSTURAK EA DOLUAK | *OTSAILAK 14* | *17.30 - 19.30* |

# JARDUERAK

Casa de las Mujeres de Pamplona
Iruñeko Emakumeen Etxea

## GIB PROBAREN EGUNEKO JARDUNALDIA EMAKUMEEN ETXEAN

DATAK: Urriak 20
ORDUTEGIA: 17.00-21.00
HIZKUNTZA: Gaztelania
ANTOLATZAILEA: Sare elkartea
NORI ZUZENDUA: Emakumeei
NORK EMANA: Raquel Turumbay

Urriaren 20a GIB Probaren Mundu Eguna da. Handia da emakumeen zaurgarritasuna GIBaren aurrean, baina horren gaineko arrisku-pertzepzioa ez dator bat horrekin. Egun horretan, informazio-stand bat jarriko da Emakumeen Etxean, kontsultak egiteko, prebentzio-materiala banatzeko eta proba azkarra eskuragarri jartzeko, modu informatu, anonimo eta doakoan.

## ASKOTARIKO EMAKUME MIGRATU ETA ARRAZALIZATUEN TOPAKETA

DATAK: Urriak 27
ORDUTEGIA: 18.30-20.30
HIZKUNTZA: Gaztelania
ANTOLATZAILEA: DEKUMAS
NORI ZUZENDUA: Emakumeei
NORK EMANA: Maria Susana Perdomo

Askotariko emakume migratu eta arrazalizatuek dinamizatutako topaketa izanen da, sareak sortzeko eta intereseko argibideak eta babesa emateko.

## ZINEFORUMA: EMAKUMEAK ETA FEMINISMOAK

- **Urriak 27. UNA CUESTIÓN DE GÉNERO (Mimi Leader). AEB, 2018. 120 min. Drama**
- **Azaroak 29. SOLAS (Benito Zambrano). Espainia, 1999. 98 min. Drama**
- **Urtarrilak 19. LAS NIÑAS (Pilar Palomero). Espainia, 2020. 100 min. Drama**
- **Otsailak 16. HIROSIMA MON AMOR (Alain Resnais). Frantzia, 1959. 88 min. Drama**

ORDUTEGIA: 18.00 -21.00
HIZKUNTZA: Gaztelania
ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea
NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har
NORK EMANA: Pilar Bobes Fernández

Emakumeen istorioak –indibidualak zein kolektiboak– kontatzen dituzten film edo dokumentalen proiekzioa eta, ondoren, solasaldia.



## SEXU-INDARKERIA

DATAK: Azaroak 3
ORDUTEGIA: 18.00
HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Astelehen Lilak
NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Tere Sáez, Conchi Urdaniz y Vanesa Koppman

Bizipenetan oinarritutako hitzaldia, Txile eta Nafarroako errealitatean sexu-indarkeriaren kasuetan nola esku hartu eta erantzuten den aztertzeko.

## EMAKUME ETA FEM-ALIGNED EZ BITAR LESBIANEN, BOLLEREN ETA BISEXUALEN GAZTE-TOPAKETA

DATAK: Azaroak 15 eta otsailak 21
ORDUTEGIA: 18.30

HIZKUNTZA: Gaztelania
ANTOLATZAILEA: DEKUMAS

NORI ZUZENDUA: LBT+ gazteak
NORK EMANA: Teresa Goti King

LBT+ GAZTEen talde batek dinamizatutako TOPAKETA, errealitateak ezagutu, eztabaidatu, sozializatu, geroko jarduerak prestatu eta sareak sortzeko. Musika eta merienda lagun

## GENEROA ARRAZISMO GARAIAN

DATAK: Azaroak 18
ORDUTEGIA: 18.30
HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Rumiñahui elkartea
NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har

NORK EMANA: Johanna Flores González y Melisa Alvarado Léon



Rumiñahui elkartearen aurkezpena: historia eta ibilbidea, lekualdaketa egoeran diren pertsonen defentsan. Horrez gain, hein handi batean atzerritarrek jasaten dituzten gertaera diskriminatzaile eta gorroto-delituei erreparatuko zaie; horretarako, Arraza eta Etniarengatiko Diskriminazioa deuseztatzeko Kontseiluaren parte den Biktimendako Arreta Zerbitzua aurkeztuko dute, zeina CEDRE eta Berdintasun Ministerioaren pean baitago. Egun Rumiñahui elkarteak ematen du zerbitzu hori Nafarroako Foru Komunitatean.

## ESPAINIAKO ARRAZISMOAREN GAINEKO 2022KO TXOSTENA

DATAK: Azaroak 27

ORDUTEGIA: 18.00-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea

NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har

NORK EMANA: Cecilia Themme Afan

2022. urteko txostenak barne hartzen du otsailetik azarora bitarte egin den ikerlan kualitatibo bat pertsona arrazalizatu, migratu eta ijitoei buruz. Biktimak erdigunetzat hartzen dituen ikuspegi batetik egin da ikerlana, haiei modu aktibo, enpatiko eta erresilentean entzunez.

## PEÑETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO AZTERLANAREN AURKEZPENA

DATAK: Abenduak 15

ORDUTEGIA: 18.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har

NORK EMANA: Iruñeko peñen federazioaren talde feminista

## BA AL ZENEKIEN HISTORIA GAUZAK EGITEN DITUZTEN EMAKUMEEZ BETETA DAGOELA?FESTA TRIBIAL FEMINISTAREKIN

DATAK: Urtarrilak 12

ORDUTEGIA: 18.00-21.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

DINAMIZATZAILEAK: Concha Fernández de Pinedo y Vanina Vázquez

Tribial feministarekin dinamizatutako jolasa eta merienda autogestionatua.



## MENOPAUSIA: EMAKUMEENDAKO ALDAKETAK ETA ERRONKAK

DATAK: Urtarrilak 19
ORDUTEGIA: 18.00-20.00
HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea
NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Elisa Sesma Sánchez

Emakumeengan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuenak –fisikoak zein emozionalak–, zaintza-lanak, dauden tratamenduen aldeko zein kontrako argudioak.

## AMODIOAK, HAUSTURAK EA DOLUAK

DATAK: Otsailak 14
ORDUTEGIA: 17.30-19.30
HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra
NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Laura Latorre Hernando

Otsailaren 14aren inguruko hitzaldia. Helburua: gogoeta egitea testuinguru heteropatriarkal eta kapitalistan desamodioaren inguruan darabiltzan istorio nagusiei buruz, istorio horiek gure harremanetan eta bizitzetan sortzen dituzten eraginak eta ondorioak aztertuta



# IKASTAROAK / LANTEGIAK

Casa de las Mujeres de Pamplona
Iruñeko Emakumeen Etxea

## MEDITAZIOA

DATAK: Astelehena. Urriaren 17tik otsailaren 27ra

ORDUTEGIA: 19.30-20.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 10

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: María José Gil Baztanzuri

Adimenari buruzko sarrera labur bat, ondoren adimenaren lasaitasuna lortzeko, gogoeta-teknikaren bidez eta arnasketa erabiliz, buruaren lasaitasun-egoerara iristeko.

## FEMINISMOEN ESKOLA (I. MAILA)

DATAK: Astelehenetan, urriaren 17tik maiatzaren 26ra

ORDUTEGIA: de 17:00 a 19:30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 25

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

KOORDINATZAILEA: IPES Fundazioa

NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har

NORK EMANA: Rut Iturbide Rodrigo - Alicia Pano Rodríguez - Ana Diez de Ure Eraul - Gracia Trujillo Barbadillo - Blanca Fernández Viguera - Ana Beaumont Fernández - Irene Lapuerta Méndez - Yolanda Jubeto Ruiz - Amaia Bacigualupe Lasheras - Tania Cañas Siriay - Patricia Amigot Leache - Pili Miqueo Miqueo - Mauge Cañada Zorrilla - Fabián Luján Acevedo

Feminismoen eskola prestakuntza-proiektu erreferente garrantzitsua da, eta 2006tik ematen da. Prestakuntza-ikastaro honetan errekuperatu egiten dira, eta balioetsi, emakumeek munduari dakarzkioten ekarpenak, dauden genero-desparekotasunak aztertuz, egungo eztabaida feministak mahaigaineratuz eta gizartearen eraldaketa sustatuz

**I. maila teoria feministan eta genero-ikuspegian murgiltzen hasi nahi duen pertsona orori zuzenduta dago.**

**Argibide gehiago, hemen: https://fundacionipes.org/escuela-de-feminismo/**



# FEMINISMOEN ESKOLA (II. MAILA)

DATAK: Astelehenetan, urriaren 17tik maiatzaren 26ra

ORDUTEGIA: de 17:00 a 19:30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 25

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

KOORDINATZAILEA: IPES Fundazioa

NORI ZUZENDUA: jendeari, oro har

NORK EMANA: Rut Iturbide Rodrigo- María Pazos Morán- María Ángeles Jaime de Pablo- Ana Beamount Rodríguez- Lucía Egaña Rojas- Magdalena DúiazGorfinkel- Pilar Bobes- Pil Miqueo-Amestcastrejana-Gracia Trujillo Barbadillo-Miriam Cameros-Nerea Barjola Ramos-Natalia Flores Sáncez-Amaia Arozarena- Estíbaliz san Juan- Susana Covas- María Zapata- Paola Damonti-maría Isabel Menéndez- Tania Cañas Siriay- Aitziber Campion.

Feminismoen eskola prestakuntza-proiektu erreferente garrantzitsua da, eta 2006tik ematen da. Prestakuntza-ikastaro honetan errekuperatu egiten dira, eta balioetsi, emakumeek munduari dakarzkioten ekarpenak, dauden genero-desparekotasunak aztertuz, egungo eztabaida feministak mahaigaineratuz eta gizartearen eraldaketa sustatuz. **II. mailak xede dauka intereseko gai klasikoetan, hau da, genero-teoriako kontzeptuetan, sakontzen jarraitzea:** zeharkakotasuna, berdintasun-printzipioa, intersekzionalitatea, emakumeen eskubideak, berdintasun-politikak eta abar. Bai eta gai eta alor berriei heltzea ere: utopia erromantikoa, feminismoak eta LGTBI+, desgaitasuna eta generoa, artea eta feminismoa, kirola eta generoa, emakume migratzaile eta errefuxiatuak.

**Argibide gehiago, hemen: https://fundacionipes.org/escuela-de-feminismo/**

# GENEROA ETA VISUAL THINKING: MARRAZTEA DISKURTSO FEMINISTARI BURUZ GOGOETA EGITEKO ETA HURA HELARAZTEKO

DATAK: Urriak 17, 24 eta 31

ORDUTEGIA: 17.00 -19.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 15

ANTOLATZAILEA: Astelehen Lilak

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA:Mercedes Corretge Arrastia



Ekintza honen bidez, Visial Thinking tresna metodologikoaren bitartez, gizartean dagoen genero-ikuspegiari buruzko hausnarketa egin nahi da, diskurtso feminista modu sortzaile, berritzaile eta eskuragarrian helarazteko. Horretarako, kontzeptu-marrazkiaren gakoak eta aukerak aztertuko dira. Marrazkia sinplea da, baina adierazgarria, eta ez da beharrezkoa ongi marrazten jakitea.

## CHI KUNG

DATAK: Asteazkena. Urriaren 19tik otsailaren 22ra
ORDUTEGIA: 18.00-20.00
HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 12
ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea
NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Sofía Perez Ibiricu

Chi-Kung delakoa Txinako medikuntza tradizionalaren parte da. Arnasketa, meridianoen automasajea, akupuntura puntuak eta mugimendu desberdinak erabiliz, burua eta gorputza konektatzen dira, eta, ondorioz gorputza indartu eta estresa kontrolatzen da.

## XAKEAREN HASTAPENAK

DATAK: Osteguna. Urriaren 20tik abenduaren 22ra
ORDUTEGIA: 19.00-20.30
HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 15
ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

NORI ZUZENDUA: Emakumeei
NORK EMANA: María Goñi

Xakearen oinarrizko arauak ezagutzen hasteko saioak

## ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA ETA BALIOKIDETZA

DATAK: Urriak 21
ORDUTEGIA: 18.00-19.30
HIZKUNTZA: Gaztelania
LEKU-KOPURUA: 15

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra
NORI ZUZENDUA: jendeari, oro ha

NORK EMANA: Natalia Gómez Delgado

Lantegiaren xedea da Espainian atzerriko tituluak aitortzeko ezagutzak eskuratzea. Halaber, behar besteko trebetasun teknikoak eta pertsonalak garatuko dira, tramite hori nork berea egin dezan.



# BOLIVIA, BRASIL, PERU, DOMINIKAR ERREPUBLIKA ETA URUGUAIKO EMAKUMEAK, XVI. MENDETIK GAUR EGUNERA

DATAK: Larunbatetan. Urriak 22, Azaroak19, Abenduak 10, Urtarrilak 14 eta Otsailak 20

ORDUTEGIA: 18.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 25

ANTOLATZAILEA: FAIN

NORI ZUZENDUA: jendeari, oro ha

NORK EMANA: Nafarroako etorkinen Elkartea Federazioa

Gune honetan, jakitera eta ezagutzera emanen dira Bolivia, Brasil, Peru, Dominikar Errepublika eta Uruguaiko emakumeen eguneroko borrokak eta bizitzak, haien esperientziak, lorpenak, ekintzak eta abar ikusgarri jarrita..

# SOLASALDI-ARRATSALDEAK EMAKUMEEN ETXEAN

DATAK: Osteguna. Urriak 27, azaroak 24, abenduak 29, urtarrilak 26 eta otsailak 23

ORDUTEGIA: 18.00-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA:15

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

DINAMIZATZAILEAK: Olga Artozqui Morras y Beatriz Agramonte Ochoa

Solasaldiak, lorategian edo Emakumeen Etxean, emakumeak ukitzen dituzten zenbait gai hizpide hartuta, hitza protagonista den gune bat sortuz.

# ESTRATEGIAK GORPUTZA ETA EMOZIOA TRESNA ERALDATZAILE FEMINISTA GISARA INTERPRETATZEKO



DATAK: Asteazkena. Azaroaren 2tik abenduaren 7ra

ORDUTEGIA:18.00-20.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA:15

ANTOLATZAILEA: Astelehen Lilak

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

IMPARTE: Sarai Pérez Aquerreta

Bizipenetan oinarritutako lantegia, emakumeen identitatea hauen bidez berreraikitzea xede daukana: indarkeria matxista askotarikoari antzematea eta parte-hartzaileei autozaintza emozional eta gorputz-interpretazioko tresnak ematea, eraldatze pertsonal eta kolektiboa lor dezaten.

## ELKARRI LAGUNTZEKO TALDEA ETXEETAKO ETA ZAINTZAKO LANGILEENDAKO

DATAK: Larunbatetan. Urtarrilak 5 eta 19, abenduak 17, urtarrilak 7 eta 21 eta otsailak 4 eta 25

ORDUTEGIA: 16.00-19.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Nafarroako SOS Arrazakeria

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

DINAMIZATZAILEA: Nafarroako SOS Arrazakeria

Etxerako eta zaintzarako emakume langileen taldea, sektore horretako emakumeen egoera hurbiletik ezagutzeko eta beren lan baldintzak hobetzeko borroketan eta eskaeretan laguntzeko.

## VIOLETA PARRA EHUNEN LANTEGIA

DATAK: Astelehenetan. Azaroak 7,14 ,21 eta 28.

ORDUTEGIA: 17.30-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 15

ANTOLATZAILEA: Astelehen Lilak

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Georgina Madariaga Aguilera

Saio bakoitzean, ehungailuaren bidez, nagusiki matxista eta diskriminatzailea den gizarte batean naturalizatu diren desberdintasun-egoerak antzemateko lan egiten da. Gizarte horretan, indarkeria mota sotilenak ikusezin bihurtzen dira, desberdintasunei eusteko eta desberdintasun-egoera nagusia betikotzeko aukera ematen dutenak.

## NOLA EGIN KARTEL BAT NIRE ELKARTEAREN JARDUEREN BERRI EMATEKO

DATAK: Azaroak 14, 15, 16 eta 17

ORDUTEGIA: 18.00-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 12

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: EMATIC

Emakumeei eta emakume-elkarteei zuzendutako lantegia, jarduerak, deialdiak eta tankera horretako informazioa jasotzen dituzten kartelak diseinatu eta hedatzeko, hala sareetan nola inprimakietan.



## UR EMAKUMEAK: EMOZIOAK ETA SEXUALITATEA

DATAK: Ostirala. Azaroak 4, 11, 18 eta 25. Abenduak 2 eta 9

ORDUTEGIA: 17.30-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 20

ANTOLATZAILEA: Mujeres en creciente

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Eloína Arras Díaz Rebake

Taldeko bideratze-proposamen honetan, Dantzaterapiaren ikuspegia eta zenbait teknika psikosomatiko (arnasketa, luzamenduak...) erabilita, gorputza eta arima karga fisikoak eta emozionalak desblokeatzeko jarreran jartzen ditugu, gure ingurunearekin atsegin handiagoz bat egiteko moduan.

## WHATSAPP ETA INSTRAGRAM HEDAPEN-TALDEENDAKO

DATAK: Urtarrilak 23, 24, 25 eta 26

HORDUTEGIA: 18.00-19.30

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 12

ANTOLATZAILEA: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: EMATIC

Emakumeei eta emakume-elkarteei zuzendutako lantegia, hedapen-taldeak hobeki erabiltzeko: pribatutasunaren arautzea, barneko bilatzaileak, biltegiratze-administrazioa eta abar.

## GU EMAKUMEON MEMORIA ETA HISTORIA BERRESKURATZEN

DATAK: Asteartea. Otsaiak 1, 8, 15 eta 22

ORDUTEGIA: 18.00-20.00

HIZKUNTZA: Gaztelania

ANTOLATZAILEA: Emakumeen Etxea elkartea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei

NORK EMANA: Paloma Fernández Vegue

Gure familiako emakumeen bizitza gogoratu eta partekatzeko solasaldiak, haien oroimena ezagutu eta ohoratzeko eta emakumeen historia indibiduala eta kolektiboa beste ikuspegi batetik kontatzeko: gutako bakoitzarena.



Casa de las
Iruñeko Mujeres
Emakumeen de Pamplona
Etxea

# EMAKUMEEN ETXEKO PROGRAMAZIOA
## Udazkena-negua 2022/23



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala